

# CRISTAU DOCTRINA

AITA GASPAR ASTETEC

ERDARAZ ESCRIBITUA ETA ORAI

EUSCARAZ PUBLICATZEN DANA

CENBAIT GAUZA AUMENTATURIC

BAZTANGO BALLECO PARROCO BATEC

CRISTAU FIELBA

INSTRUCCIONBAREN DESEYUZ

---

BEARDEN LICENCIAREQUIN

---

u  
02



M- 8682

R- 36294

ATV  
17901

# CRISTAU DOCTRINA

AITA GASPAR ASTETEC

ERDARAZ ESCRIBITUA ETA ORAI

EUSCARAZ PUBLICATZEN DANA

CENBAIT GAUZA AUMENTATURIC

## BAZTANGO VALLECO PARROCO BATEC

CRISTAU FIELEA

INSTRUCCIONEAREN DESEYUZ

BEARDEN LICENCIAREQUIN

CHRISTIAN DOCTRINE

ALTA CASAS PUBLISHED

THE NEW YORK OFFICE

ALTA CASAS PUBLISHED

THE NEW YORK OFFICE

ALTA CASAS PUBLISHED

OF

THE NEW YORK OFFICE

THE NEW YORK OFFICE

THE NEW YORK OFFICE

**NOS EL DOCTOR DON JOSÉ JIMÉNEZ,**

*Prestitero, Visitador de este Obispado, con encargos de Provisor y Vicario general de él, por el Excmo. e Ilustrísimo señor D. Joaquín Javier Uriz y Lasaga, Obispo de Pamplona, Caballero gran Cruz, Prelado de la Real y distinguida Orden de Carlos III, del Consejo de S. M., etc.*

Hacemos saber a los señores que las presentes vieren, que ante Nos se presentó un manuscrito intitulado: «Cristau doctrina Aita Gaspar Astetec erdaraz escribitua eta orai euscaraz publicatzen dana cenbait gauza aumentaturic Baztango Valleco Parroco batec, cristau fielea instruccionearen deseyuz», traducida del castellano al vascuence, solicitando nuestra licencia para la impresión; y habiéndolo remitido al R. P. Fr. Esteban de Vera, Guardián del convento de Capuchinos, extramuros de esta ciudad, por su censura consta que la traducción al vascuence de la doctrina del P. Astete está fielmente hecha, y en las adiciones no encuentra cosa alguna que se oponga a nuestra Santa Fe y buenas costumbres. Por tanto, a lo que a Nos toca, concedemos licencia para la impresión del referido manuscrito, debiéndose poner al

principio de cada ejemplar copia de esta nuestra licencia. En cuyo testimonio damos las presentes, firmadas de nuestra mano, selladas con el menor de las Armas de S. E. I. y refrendadas por el infrascrito Vicesecretario de Cámara, en la ciudad de Pamplona, a cuatro de febrero de mil ochocientos veinte y seis.—*Doctor D. José Jiménez.*—Por mandato de S. S., *D. Angel Ozcoidi, vicesecretario.*

Por comisión del Real y Supremo Consejo de este Reino de Navarra he leído con la debida atención este cuaderno, que contiene la traducción en idioma vascongado del Catecismo de Doctrina Cristiana que el P. Gaspar Astete compuso en lengua vulgar castellana, la cual traducción, hecha por un Párroco del Valle de Baztán, para mayor comodidad de sus feligreses, hallo que en todo está fiel y literal con el expresado Catecismo del P. Astete, sin más diferencia que la adición de algunas cuantas preguntas y respuestas muy oportunas y conformes a la más sana doctrina de la Teología Moral. Por tanto, y por no contener cosa alguna opuesta al dogma católico, buenas costumbres ni regalías de S. M. (que Dios guarde), entiendo que se puede conceder al referido Párroco la li-



encia que solicita para la impresión. Así lo siente, salvo el superior juicio del Real y Supremo Consejo. Pamplona diez y ocho de febrero de mil ochocientos veinte y seis.—*Fr. José de Jesús María, Trinitario Descalzo.*

Certifico yo, el Secretario infrascrito, que por decreto proveído en este día por el Real y Supremo Consejo de este Reino se ha concedido la licencia solicitada para imprimir la obra que expresa la censura precedente. En certificación de lo cual, firmé en Pamplona a veintiuno de febrero de mil ochocientos veinte y seis.—*Faustino Ibáñez, secretario.*



### AVISUA BECATARI GUCIEI

Utzi becataria  
Len baño len becatua,  
Bai, eta ere ocasioa  
Ceñetan zauden sartua.  
Gaurco gaubean guerta daiteque  
Pensatu gabe zu iltzea,  
• Eta instante ortan berean,  
Infernura erortzea.  
Eguizu Confesio on bat  
Ongui disponituric,  
Barcacioa escadiozozu  
Yaunari, damaturic  
Da zure bici gucia  
Gracian bicitzea.  
Eta Ceruco gloriara  
Betico pasatzea.  
Artaraco libro au,  
Cuidadoarequin leizazu  
Eta eracusten duena,  
Siñetsi, eta obrazazu.

Gurutze Sainduaren † señalea gatic, gu-  
re † etsayeteric, libra gaitzatzu † gure Yau-  
na, eta Yaungoicoa. Aitaren eta Semearen  
† eta Espiritu Sainduaren izenean. Amen.



### AITA GUREA

Aita gurea, Ceruetan zaudena, santifica bedi zure izena, betor gure gana zure erreina, eguin bedi zure borondatea Ceruan bezala lurtean ere. Eman diezaguzu egun gueren eguneroco oguia, barcadietzagutzu guri gueren zorrac, guc zor gaituztenei barcatzen dieztegun bezala, eta ezgaitzatzula utzi tentacioan erortzera, baicic libra gaitzatzu gaitzetic. Amen.

### AVE MARIA

Ave Maria graziaz betea, Yauna da zurequin bedecatua zu zara andre gucien artean, eta bedecatua da zure sabeleco frutua Jesus. Santa Maria, Yaungoicoaren Ama, zuc otoiz eguizu gu becatarien gatic, orai, eta gure eriotzeco orduan. Amen.

### CREDOA

Nic siñesten dut Yaungoicoa Aita guziz poderosoaren baitan, Ceruaren, eta lurraren creatzalean, eta Jesu Cristo aren Seme bacar gure Yaunaren, baitan, cein concebitua izancen Espiritu Sainduaren obraz, eta graziaz: sortucen Virgíña Mariaren ganic, padecitu zuen Poncio Pilatosen manuaaren azpian, crucificatu zuten, ill, eta

ortzi zuten, yauntsicen Infernuetara, irugarren egunean biztucen illen artetic, igancen Ceruetara, eta dago yarrinic, Yaungoico Aita guciz poderosoaren escuñeco aldean, andic etorri beardu illec, eta biciec yusgatzera. Nic siñesten dut Espiritu Sainduaren baitan, Eliza Ama Saindu Catolicoa, Sainduen Comunioa, becatuen barcamentua, araguiaren biztea, bicitza seculacoa. Amen.

#### SALVEA

Yaungoicoac Salva zaitzala Erreguiña misericordiaren Ama, bicitza, dulzura eta gure esperanza. Yaungoicoac salva zaitzala, zure deyez gaure Evaren ume desterratuac, zu gana gaude suspiroz, sentimentuz, eta negarrez negarrezco valle onetan. Ea, bada, Señora, gure Abogada, itzultzitzu gure gana zure begui misericordioso oriec, eta destierro onen ondoan eracutsi diezaguzu Jesus, zure sabeleco, frutua bedeicatu. ¡O clementisimal ¡O piadosal ¡O dulce Virgüña Marial Otoiz eguizugugatic, Yaungoicoaren Ama Santa, mereci dezagun alcanzatzea Jesu Cristoren promesac. Amen.

#### CONFESIO GENERALA

Nic becataria confesatzen natzayo Yaun-

goico guciz poderosoari, Bienaventuratu Maria beti Virginiari, Bienaventuratu San Miguel Aingueruari; San Juan Bautistari, eta Apostolu Saindu San Pedro, eta San Pablori, Saindu guciei, eta zuri, nere Aita Espirituala, eguin dudala becatu anitz pensamentuz itzez, eta obraz, nere culpaz, nere culpaz, nere culpa guciz andiaz. Orren gatic escatzen diot Bienaventuratu Maria beti Virginiari, Bienaventuratu San Miguel Aingueruari, San Juan Bautistari, eta Apostolu Saindu San Pedro, eta San Pablori, Saindu guciei, eta zuri nere Aita Espirituala, otoiz eguin dezazuela nitaz Yaungoico gure Yaunari.

#### ACTA CONTRICIOZCOA

Jesu Cristo nere Yauna, Yaungoico eta Guizon eguiatzcoa, nere Creatzalea, nere Redentorea, eta nere Aita amorosoa, ceren zaren guciz ona, eta ceren maitatzen zaitudan gauza gucien gañetic, damu dut, Yauna, biotz gucitic, zu ofendituaz; artzen dut proposito firmea ez berriz beñere becatu-ric eguiteco; confesatzeco, eta Confesoreac ematen dauden penitencia cumplitzeco, eta apartatzeco becatu eguiteco ocasio gucietaric. Ofrecitzen dazquizut, Yauna, nere bicia, obra eta trabajuac nere becatuen sa-

tisfaccionetan, eta dut confianza zure ontasun, eta misericordia neurri gabecoan barcaticu daztazula nere becatua zure odol precioso. Pasione eta eriotzearen mercedentuen gatic, eta emanen daztazula gracia emendatzeco, eta bicitzeco zure cerbitzu sainduan eriotzerañocoan. Amen.

Yaungoicoaren legueco Manamenduac dire amar: lenbicico irurac Yaungoicoaren honracoac, eta bertze zazpiac, lagun projimoaren provechuoac

*Lenbicicoa:* Yaungoicoa maitatzea gauza gucien gafetic.

*Bigarrena:* Vanoan yuramenturic ez eguitea.

*Irugarrena:* Besta egunac santificatzea.

*Laugarrena:* Aita eta ama honratzea.

*Bortzgarrena:* Nior ez iltzea.

*Seigarrena:* Lujuriazco becaturic ez eguitea.

*Zazpigarrena:* Ez ebastea.

*Zorzigarrena:* Falso testimonioric ez goratzea: ez eta ere guezurric erratea.

*Bederatzigarrena:* Lagun projimoaren emazteric ez deseatzea.

*Amargarrena:* Berceren ondasunac codiciaz ez deseatzea.

Amar Manamenduac encerraten dire bitan: lenbicicoa, Yaungoicoa maitatzea

gauza gucien gañetic: bigarrena, gure lagun projimoac gueren buruac bezala. Amen.

Articulo Fedecoac dire amalau: lenbico zazpiac Divinidadede edo Yaungoicotasun Sainduarenac: berze zazpiac Jesu Cristo gure Yauna Yaungoico, eta Guizon eguiazcoaren Humanidade edo Guizontasun Sainduarenac

YAUNGOICOTASUNARENAC DIRE OC

*Lenbicoa:* Siñestea Yaungoico guciz Poderoso batean.

*Bigarrena:* Siñestea Aita dela.

*Irugarrena:* Siñestea Semea dela.

*Laugarrena:* Siñestea Espiritu Saindua dela.

*Bortzgarrena:* Siñestea Creatzalea dela.

*Seigarrena:* Siñestea Salvatzalea dela.

*Zazpigarrena:* Siñestea Glorificatzalea dela.

JESU CRISTOREN GUIZONTASUN SAINDUARENAC  
DIRE OC

*Lenbicoa:* Siñestea Jesu Cristo gure Yauna guizontasunean izancela concebitua Espiritu Sainduaren obraz eta graciaz.

*Bigarrena:* Siñestea sortucela Virgíña Mariaren ganic, guelditzen celaric Señora au Virgíña Semea sortu baño len, sortzean eta sortu, eta ondoan.



*Irugarrena:* Siñestea sufritu zuela Pasio-  
nea eta eriotza gu becatariac salvatzeagatic.

*Laugarrena:* Siñestea yautsizela Infer-  
nuetara nun noiz etorricocen ateratzera  
beguira zauden anima Sainduac.

*Bortzgarrena:* Siñestea irugarren egu-  
nean ille arteric biztu zela.

*Seigarrena:* Siñestea iganzela Cerueta-  
ra, eta dagola yarriric Yaungoico Aita gu-  
ciz poderosoaren escuñeco aldean.

*Zazpigarrena:* Siñestea etorrico dela  
illen, eta bicien yuzgatzera: onei ematera  
gloria, ceren guardatu zituzten aren Mana-  
mentu Sainduac, eta gaistoei betico pena,  
ceren ez zituzten guardatu.

**Cristau Doctrinaren declaracionea galde  
eguiñez eta errespondituz**

*Galdetzen dut.* ¿Cristaua zara?

*Erresponditzen dut.* Bai, Yauna, Yaun-  
goicoaren graziaz.

G. Cristauaren icen ori, ¿nondic duzu?  
E. Jesu Cristo gure Yaunaren ganic.

G. ¿Cer erran naidu cristauac? E. Jesu  
Cristoren guizona.

G. ¿Cer entenditzen duzu Jesu Cristo-  
ren guizonaz? E. Jesu Cristoren fedea duen



guizona, batayoan errezibitu zuena, eta dagona obligatua aren cerbitzu saindura.

G. ¿Cein da cristauaren señailea? E. Gurutze Saindua.

G. ¿Cergatic? E. Cergatic baita Cristo gurucificatuaren figura; ceñetan redimitu quintuen.

G. Cenbat modutan usatzen du cristauac señaile untaz? E. Bietan, Yauna.

G. ¿Cein dire? E. Ziñatzea eta santi-guatzea.

G. ¿Cer da ziñatzea? E. Escuñeco escuren beatz andiaz iru gurutze eguitea, lenbicioa copetan, bigarrena agoan, irugarrena bularretan, mintzatzen garelaric Yaungoico gure Yaunarequiñ.

G. ¿Ea nola? E. Gurutze Sainduaren † señailea gatic, gure † etsai etaric, libra gaitzatzu † gure Yauna, eta Yaungoicoa.

G. ¿Cergatic ziñatzen zara copetan? E. Yaungoicoac libra gaitzan pensamentu gaisto etaric.

G. ¿Cergatic agoan? E. Yaungoicoac libra gaitzan itz gaisto etaric.

G. Cergatic bularretan? E. Yaungoicoac libra gaitzan obra, eta deseyu gaisto etaric.

G. ¿Cer da santi-guatzea? E. Escuñeco escuaren bi beatzez gurutze bat eguitea, copetatic bularretaraño, eta ezquerreco so-

ñetic escuñecoraño mintzatzen garelaric Trintate guciz Sainduarequin.

G. ¿Ea nola? E. Aitaren eta Semearen, † eta Espiritu Sainduaren izanean. Amen.

G. ¿Noiz usatu bear dugu seña ontaz? E. Obra on bat eguiten asten garen gucietan, edo aurquitzen garenean necesidade, tentacione, edo peligroan; particularqui goatzetic yeiquitzean, echetic ateratzean, Elizan sartzean, yatean eta goatzeracoan.

G. ¿Cergatic orren berce aldiz? E. Cergatic lecu, eta denbora gucietan gure etsayec tentatzen, eta perseguitzen gaituzte.

G. ¿Cer etsai dire oriec? E. Mundua, demonioa eta araguaia.

G. Badu gurutzeac virtutea etsai orien contra? E. Bai, Yauna.

G. ¿Nondic du virtute ori? E. Ceren Jesu Cristoc garaitu zituen gurutzean bere eriotzearequiñ.

G. Gurutzea adoratzean ¿nola erraten duzu? E. Adoratzen zaitut Cristo, eta be-deicatzen zaitut ceren zure Gurutze Sainduarequiñ redimitu zinuen mundua.

#### CRISTAU DOCTRINAREN DIVISIONEA

Icusi dugu cristaua zarela cristauaren izena, eta señaLEAN; erranzazu orai.

G. ¿Cenbat gauza dago cristaua obligaturic yaquitera adimentura allegatzen denean? E. Lau gauza, Yauna.

G. ¿Cein dire? E. Yaquitea cer bear duen siñetsi, cer escatu, cer obratu eta cer errecibitu.

G. ¿Nola yaquiñen du cer bear duen siñetsi? E. Daquizquiellaric Credo, edo Articulo Fedecoac.

G. ¿Nola yaquiñen du cer bear duen escatu? E. Daquizquiellaric Aita gurea, eta Elizaren berce oracioneac.

G. Nola yaquiñen du cer bear duen obratu? E. Daquizquiellaric Yaungoicoaren legueco Manamenduac, Eliza Ama Sandua-renac, eta Obra misericordiazcoac.

G. ¿Nola yaquiñen du cer bear duen errecibitu? E. Daquizquiellaric Eliza Ama Sainduaren Sacramentuac.

**Cristau doctrinaren lenbico parte, ceñetan  
explicatzen da Credo, edo Articulo  
Fedecoac**

G. ¿Nor erran zuen Credo? E. Aposto-luec, Yauna.

G. ¿Certaco? E. Guri fedeco gauzac eracusteco.

G. ¿Eta zue certaco erraten duzu? E. Cristaua dugun fedea aitortzeco.

G. ¿Cer da fedea? E. Icusi ezduguna siñestea.

G. ¿Icusi zinuen zue Jesu Cristo sortzen? E. Ez, Yauna.

G. ¿Icusi zinuen iltzen, edo Ceruetara igaten? E. Ez, Yauna.

G. ¿Siñesten duzu? E. Bai, Yauna.

G. ¿Cergatic? E. Cergatic Yaungoicoac ala eracutsi dio Eliza ama Sainduari eta Eliza ama Sainduac guri.

G. ¿Cer gauza dire cristaua bezala dituzunac? E. Eliza Ama Sainduac dituenac, eta siñesten dituenac.

G. ¿Cer gauza dire zue, eta Eliza Ama Sainduac dituzuenac, eta siñesten dituzuenac? E. Artículo Fedecoac principalqui, Credoan dauden bezala.

G. Cer dire Artículo Fedecoac? E. Fedearen misterio principalenac.

G. ¿Certaco dire Artículo Fedecoac? E. Emateco noticia Yaungoico gure Yaunaz, eta Jesu Cristo gure Redentoreaz.

G. ¿Nor da Yaungoico gure Yauna? E. Da gauza bat erran, eta pensatu daitequen baño gueyagocoa: Yaun bar guziz ona, eta poderosoa, yaquitasun gucia duena, justoa, gauza gucien principio eta fiña.

G. ¿Trintate gucz Saindua nor da? E. Da Yaungoicoa bera, Aita, eta Semea, eta Espiritu Saindua, iru Persona distintac, eta eguiazco Yaungoico bat bacarra.

G. ¿Aita Yaungoicoa da? E. Bai, Yauna.

G. Semea Yaungoicoa da? E. Bai, Yauna.

G. ¿Espiritu Saindua Yaungoicoa da? E. Bai, Yauna.

G. ¿Iru Yaungoico dire? E. Ez, Yauna, Yaungoico eguiazco bat baicic.

G. ¿Aita Semea da? E. Ez, Yauna.

G. ¿Espiritu Saindua, Aita edo Semea da? E. Ez, Yauna.

G. ¿Cergatic? E. Cergatic personac distinctoac dire eguiazco Yaungoico bat izanagatic.

G. Nola da Yaungoicoa gucz Poderoso? E. Cergatic bere poderearequin eguiten du nai duen gucia.

G. ¿Nola da Creatzalea? E. Cergatic deusecetic eguin cituen gauza guciac.

G. ¿Nola da Salvatzalea? E. Cergatic ematen du gracia, eta barcatzen ditu becatuac.

G. ¿Nola da Yaungoicoa Glorificatzalea? E. Cergatic ematen du gloria aren gracian irauten duenari.

G. ¿Badu Yaungoicoac gorputzaren figuraric guc bezala? E. Yaungoicotasunean ez Yauna, ceren den Espiritu purua, baño bai Guizontasunean.



G. Iru Persona divinoetaric ¿cein eguin cen Guizon? E. Bigarrena, ceinbaita Semea.

G. ¿Aita eguin cen Guizon? E. Ez, Yauna.

G. ¿Espiritu Saindua eguin cen Guizon? E. Ez, Yauna.

G. ¿Cein bada? E. Semea bacarric, Yauna.

G. \*¿Nun eguin cen Guizon? E. \*Maria Santisimaren entraña garbietan.

G. \*¿Noren obraz? E. \*Espiritu Sainduaren obraz eta graciaz.

G. \*¿Nola izan cen obra ura? E. \*Espiritu Sainduac Maria Santisimaren entraña garbietaco odolarequin formatuzuen gorpuz bat, ez deusetaric eguin zuen anima bat, anima eta gorpuz elcarrequin unituric Trintateco bigarren Persona, artu cituen bere gana, eta an artaraño Yaungoicoa cena guelditu cen Yaungoico eta guizon eguiazcoa \* cein deitzenda Jesu Cristo.

G. Beraz ¿nor da Jesu Cristo? E. Da Yaungoico biciaren Semea, guizon eguin cena gu redimitzeagatic, eta bere ejempluarrequin nola bici eracusteagatic.

G. ¿Jesu Cristoc badu Aitaric? E. \*Yaungoicotasunean bai Yauna cein baita Aita Eternoa Trintateco lenbico Persona; guizontasunean ez Yauna.

G. \*¿Eta gueyagocoa da Aita Semea baño? E. \*Ez, Yauna; baicic berdin dire



Aita, Semea, eta Espiritu Saindua, bada irurac Yaungoico bat bacarra dire.

G. \*¿Badu Jesu Cristoc Amaric? E. \*Yaungoicotasunean ez, Yauna, baño bai guizontasunean cein baita Maria Santisima.

G. \*¿Non dago Jesu Cristo? E. \*Yaungoicotasunean lecu gucietan: guizontasunean ceruan eta aldareco Sacramento Sainduan.

G. ¿Cer erran nai du Jesusec? E. Salvatzalea.

G. ¿Certaric salvatu guintuen? E. Gure becatuetaric eta demonioaren menetic.

G. ¿Cer erran nai du Cristo? E. Ungitua.

G. ¿Certaz izan cen ungitua? E. Espiritu Sainduaren doayez eta graciaz.

G. Jesu Cristo gure Yauna ¿nola izan cen concebitua eta sortucen Ama Virginiaren ganic? E. Berceac ez bezala Yaungoicoaren milagro.

G. ¿Eta aren Ama beti bizi izan cen Virgini? E. Bai, Yauna.

G. \*¿Non iltzen Jesu Cristo? E. Gurutzean itzez yosiric.

G. ¿Cergatic nai izanzuen ill Gurutzean? E. Gu becuric, eta Infernutic, libratzeagatic.

G. \*¿Non guelditu cen aren gorputza? E. \*Gurutzean, Yauna.

G. \*¿Eta ¿aren anima? E. Yautsi cen Infernuetara.

G. \*Cer entenditzen duzu Infernuaz ceñetara yauntsicen Jesu Cristo gure Yaunaill eta ondoan? E. Ez condenatuen lecura, baicic Limbora, ceñetan aurquitzen ciren yustuac.

G. ¿Nola yauntsi cen? E. Yaungoicotasunarequiñ unituric.

G. Eta aren gorputza ¿nola guelditu cen? E. Yaungoicotasunarequiñ berarequiñ unituric.

G. ¿Nola igan cen Ceruetara? E. Bere virtutez.

G. ¿Cer erran nai du \*an dagola yarri-ric Aita Eternoaren escuñeco aldean»? E. Yaungoicotasunean baduela arec aifia gloria, eta guizontasunean berce guciec baño gueyago.

G. Noiz etorrico da biciac eta illac yuzgatzera? E. \*Azquen juicioco egunean, \*mundua acabatzean.

G. Eta ¿orduan illac biztu bear dute? E. Bai, Yauna, izan cituzten anima eta gorputzequiñ.

G. \*¿Cer siñesten duzu erratean: Siñesten dut Espiritu Sainduaren baitan? E. Trinitateco irugarren Persona dela Espiritu Saindua, Yaungoico bat Aita, eta Semearequiñ.

G. ¿Cer siñesten duzu erratean: Siñesten dut Sainduen Comunioa? E. Cristau fiel guciec dutela parte elcarren obra one-

tan, cerea: guciec eguiten dute gorpuz bat, cein baita Eliza.

G. ¿Cer da Eliza? E. Da cristau fiel gucien unionea, ceñen burua da Aita Saindua Erromacoa.

G. ¿Nor da Aita Saindua Erromacoa? E. Da Jesu Cristoren Vicarioa lurrean, ceñi gucioc gaude obligatuac obeditzera.

G. \*Cer erran nai du becatuen barca-mendua? E. Badirela erremedioac gure becatuac barcatzeco.

G. \*Cer erran nai du bicitza seculacoa. E. Bici onen ondoan izanen dela berce bici bat beñere acabatuco ezdena, onenzat Ceruan, eta gaistoenzat Infernuan.

G. Credo eta Articoloez landara ¿siñesten duzu berce gauzaric? E. Bai, Yau-na, Escritura Sainduan dagona, eta Yaungoicoac bere Elizari eracutsi duen gucia.

G. ¿Cer gauza dire oriec? E. Ez neri galde eguiñ, ceren naicen ignorantea: Eliza Ama Sainduac baditu doctoreac erres-ponditzen daquitenac.

M. Ongui erran duzu Elizaco doctorei tocaten zayola, eta ez zuri contu ematea Fedeco gauza guciez. Asqui da zuretzat Artículo Fedecoac ematea Credoan dau-den bezala.

**Cristau doctrinaren bigarren partea, ceñetan  
esplicatzen da cer bear dugun escatu, eta Eli-  
za Ama Sainduaren oracioneac**

Icusi dugu nola daquizun cer bear duzun  
siñetsi, cein baita lenbico gauza: pasa-  
gaitecen bigarrenera cein baita yaquilea  
cer bear dan escatu. Erran zazu.

G. ¿Norc erran zuen Aita gurea? E. Je-  
su Cristoc, Yauna.

G. ¿Certaco? E. Guri otoiz eguiten era-  
custeco.

G. ¿Cer da otoiz eguitea? E. Yaungoicoa-  
ri biotza goratzea, eta favoreac escatzea.

G. Aita gurea erratean ¿norequiñ min-  
tzatzen zara? E. Yaungoicoa gure Yauna-  
requiñ.

G. ¿Non dago Yaungoicoa gure Yauna?  
E. Lecu gucietan; particularqui Ceruan eta  
Aldareco Sacramentu Sainduan.

G. Cein da oracionetan oberena? E.  
Aita gurea, Yauna.

G. ¿Cergatic? E. Cergatic erran zuen  
Jesu Cristoc berac Apostoluec escaturic.

G. ¿Cergatic gueyago? E. Cergatic di-  
tuen zazpi peticione caridadean fundatuac.

G. ¿Cein dire? E. Lenbicoa santifica-  
bedi zure icena.

G. ¿Cer escatzen duzu peticione ortan?  
E. Yaungoicoaren icena izan dayela zagu-  
tua eta honratua mundu gucian.

G. ¿Cein da bigarrena? E. Betor gure  
gana zure erreñua.

G. ¿Cer escatzen duzu peticione ortan?  
E. Yaungoicoac erreina dezala gure ani-  
metan, emen lurrean graziaz, eta guero  
eman diezagula bere gloria.

G. ¿Cein da irugarrena? E. Eguin bedi  
zure borondatea Ceruan bezala lurrean ere.

G. ¿Cer escatzen duzu peticione ortan?  
E. Eguin dezagula Yaungoicoaren boron-  
datea lurrean gaudenac, Ceruan bienaven-  
turatuac eguiten duten bezala.

G. ¿Cein da laugarrena? E. Eman die-  
zaguzu egun guren eguneroco oguia.

G. ¿Cer escatzen duzu peticione ortan?  
E. Eman diezagula Yaungoicoac conveni-  
den sustentua gorputzeraco, gracia espiri-  
tualac eta sacramentuac animaraco.

G. ¿Cein da bortzgarrena? E. Barca  
dietzagutzu guri gueren zorrac, guc zor  
gaituz tenei barcatzen dieztegun bezala.

G. ¿Cer escatzen duzu peticione ortan?  
E. Yaungoicoac barca dietzagula guri gue-  
ren becatuac, guc gueren gaizquieguillei  
barcatzen dieztegun bezala.



G. ¿Cein da seigarrena? E. Ez gaitzatzula utzi tentacioan erortzera.

G. ¿Cer escatzen duzu petitione ortan? E. Yaungoicoac ez gaitzala utzi erortzera, ez eta consentincera pensamentu eta tentacione gaistoetan, ceñequin demonioac eroriraci naigaitu becatuan.

G. ¿Cein da zazpigarrena? E. Baicic libra gaitzatzu gaitzetic.

G. ¿Cer escatzen duzu petitione ortan? E. Yaungoicoac libra gaitzala animaco, eta gorputzeco gaitz eta peligro gucietaric.

G. ¿Cergatic erraten duzu lenic «Aita gurea Ceruetan zaudena»? E. Yaungoicoari biotza goratzeco eta escatzeco umildade eta confianzarequin.

G. ¿Cer erran nai du «Amen» erraten duzun azquen itzac? E. Ala izan dayela.

G. ¿Cer oracione erraten diozu principalqui Maria Santisimari? E. Ave Maria eta Salvea.

G. ¿Norc erran zuen Ave Maria? E. San Gabriel Ainguiruac Ama Virginiaren salutzera etorri cenean.

G. ¿Norc erran zuen Salvea? E. Eliza Ama Sainduac dauca errecibitua.

G. ¿Certaco? E. Maria Santisimari favoreac escatzeco.

G. Ave Maria, edo Salvea erratean



¿norequin mintztazen zara? E. Maria Santísima Virginiarequin.

G. Maria Santísima Virgiña ¿nor da? E. Da Señora bat virtutez betea, Yaungoicoaren Ama eta Ceruen dagona.

G. Eta aldarean dagona ¿nor da? E. Da Ceruan dagonaren imagiña eta semejanza bat.

G. Certaco dago aldarean? E. Ura icustean oroigatecen Ceruan dagonaz, eta ceren den aren imagiña eta semejanza eguin dizagun reverencia.

M. Au bera eguin bear duzu gañeraco Sainduen imagiñequin.

G. Eguin bear dugu oracionea Ainguiruei eta Sainduei? E. Bai, Yauna, gure birtartecoei bezala.

G. Cér gauza dire Ainguiruac? E. Dire Espiritu bienaventuratuac Yaungoicoac gozaten Ceruan daudenac.

G. Certaco creatu zituen Yaungoicoac? E. Eternidade gucian alabatu eta bedecatu dezaten.

G. Certaco gueyago? E. Aren Ministroac bezala goberna dezaten Eliza eta guardatu guizonac.

G. Beraz baduzu zuc Aingueruguardacoa? E. Bai, Yauna, eta bacoachac badu berea.

M. Bada izan diezazu devocio andia, eta ari encomenda zaite egunero.

**Cristau doctrinaren irugarren partea ceñetan  
esplacitzen da cer bearden obratu**

Icusi duguc er bearduzun siñetsi, eta escatu: icusi dezagun orai cer bearduzun obratu.

G. Cein da Yaungoicoaren legueco lenbico Manamendua? E. Yaungoicoa maitatzea gauza gucien gañetic.

G. Norc maitatzen du Yaungoicoa? E. Aren Manamenduac guardatzen dituenac.

G. Cer da Yaungoicoa maitatzea gauza gucien gañetic? E. Nayago izatea gauza guciac galdu, Yaungoicoa ofenditu baño.

G. Certara gueyago obligatzen gaitu Manamendu onec? E. Adoratzera Yaungoicoa bacarric, gorputzeco eta animaco reverencia guciarequin, siñetsi; eta esperatzen dugularic aren baitan fede biciarequin.

G. Norc eguiten du becatua Manamendu onen contra? E. Idolo edo yaungoico falsoac adoratzen dituenac, edo auen baitan siñesten duenac.

G. Norc gueyago? E. Agüerotan siñesten duenac, edo supersticione, hechiceria, edo sorguinquieretaz baliatzen denac.

G. Norc eguiten du becatua Fedearen contra? E. \*Gure Fede Sainduaren misterioac ucatzen, edo dudatzen dituenac; edo bere faltaz icasten ez dituenac.

G. Norc esperanzaren contra? E. \*Yaungoicoaren baitan bear duen confianza gal-tzen duenac.

G. Cein da bigarrena? E. Vanoan yuramenturic ez eguitea.

G. Norc eguiten du yuramentua vanoan? E. Yuramentua eguiten duenac eguia gabe, justicia gabe eta necesidaderic gabe.

G. Eta becatua da yuramentua vanoan eguitea creaturen gatic? E. Bai, Yauna, cer-gatic creaturetan yuramentua eguiten zayo Creadoreari.

G. \*Cer becatu da yuramentua eguitea guezurraren gañean? E. \*Mortala, Yauna.

G. \*Norc eguiten du yuramentua justitia gabe? E. \*Gauza gaistoaren gañean eguiten duenac.

G. \*Cer becatu da yuramentua eguitea necesidaderic gabe? E. \*Berez veniala, Yauna.

G. Vanoan yuramenturic ez eguiteco ¿cer erremedio aurkitzen da? E. Acostum-bratzea ez edo bai erratera Jesu Cristoc eracusten duen bezala.

G. Cein da irugarrena? E. Besta egu-nac santificatzea.

G. Norc santificatzen ditu besta egu-nac? E. Meza osoa enzuten duenac, eta necesidaderic gabe trabajitzen ez duenac.

G. Cein da laugarrena? E. Aita eta ama onratzea.

G. Norc onratzea ditu aita eta ama? E. Obeditzen, socorritzen eta errespetatzen dituenac.

G. \*Noiz faltatzen du umeac obediencia? E. \*Bere guratsoac ez seguituz gaizqui dabillan gucietan.

G. \*Noiz faltatzen du errespetura? E. \*Gaizqui mintzaten zayon gucietan, beguiratze gaisto, edo desafioa eguiten dionean.

G. \*Noiz faltatzen du amoriora? E. \*Despreciatzen duen gucietan, eta dezaquelaric socorriten ez badu bere necesidadetan.

G. Norc berkeric entenditzen dire guratsoen izenean? E. Gueyagocoac direnac, edade, dignidade eta gobernuan.

G. Eta cein dire guratsoen obligacioneac beren umearequin? E. \*Gauza onac eracustea, corregitzea, exemplu onac ematea, eta beren denboran officioa, edo estadua.

G. Cein da bortzgarrena? E. Nior ez iltzea.

G. Cer manatzen zaigu Manamendu ontan? E. Niori gaizquiric ez eguitea, ez itzez, ez obraz, ez eta deseyuz ere.

G. \*Norc eguiten du becatua Manamedun onen contra? E. \*Odioan bici denac, eta etsayari barcatzen ez dionac.

G. \*Norc gueyago? E. \*Alegratzen denac berceren gaitzaz edo penatu berceren onaz.

G. Cein da seigarrena? E. Luxuriazgo becatuic ez eguitea.

G. Cer manatzen zaigu Manamendu ontan? E. Izan gaitecilla garbiac eta castoac pensamentu, itzez eta obretan.

G. Cein da zazpigarrena? E. Ez ebastea.

G. Cer manatzen zaigu Manamendu ontan? E. Ez quentzea, ez iduquitzea, ez eta ere nai izatea berceren gauza yabearen borondatearen contra.

G. \*Cer gueyago manatzen zaigu Manamendu ontan? E. Berceren ondasunetan calteriz ez eguitea, ez eta ere artaraco consejuric ematea.

G. \*Certara dago obligatua Manamendu ontan faltatzen duena? E. \*Izultzera yabeari ebatsi duen gauza, eta pagatzera eguin dition calteac.

G. \*Eta ezbadetzeaque pagatu edo itzuli ¿certara dago obligatua? E. \*Eguitera eguifial gucia.

G. Cein da zorzigarrena? E. Falso testimonioric ez goratzea, ez eta ere guezurric erratea.

G. Cer manatzen zaigu Manamendu ontan? E. Ez arinqui lagun proximoaz



gaizqui yuzgatzea, ez erratea, ez eta ere aditzea aren faltac.

G. Norc eguiten du becatua Manamendu onen contra? E. Motivo andiric gabe gaizqui yuzgatzen duenac; fama quetzen duenac, secretua aguertzen, edo guezurra erraten duenac.

G. \*Norc gueyago? E. \*Berceren falta, edo flaqueza secretuan daudenac gustoa-requin aditzen dituenac.

G. \*Certara dago obligatua faltatzen duena? E. \*Itzultzera lagun proximoari quendu dion onra edo fama.

G. Cer debecatzen zaigu bederatzi eta amargarren Manamentuetan? E. Deshonestidade eta ondasunen deseyu gaistoac.

#### ELIZA AMA SAINDUAREN MANAMENDUAC DIRE BORTZ

*Lenbicicoa:* Igandetan, eta berce besta egunetan meza osoa entzutea.

*Bigarrena:* Urtean bein bedare confesatzea, edo lenago eriotzeco peligroan aurquitzen bada, edo comecatu bear badu.

*Irugarrena:* Bazco garizumacoetan comecatzea.

*Laugarrena:* Eliza Ama Saindua mantzen duenean barutzea.

*Bortzgarrena:* Yaungoicoaren Elizari amarrenac, eta primiciac pagatzea.



G. Certaco dire Manamendu auec? E. Yaungoicoaren leguecoac obequi guardatzeco.

G. \*Nor daude obligatuac igandetan, eta berce besta egunetan Meza osoa enzutera? E. \*Adimentura allegatu diren Cristabac impedimenturic ez duten gucietan.

G. \*Nola enzun bear du Meza? E. \*Atencione eta devocione arequin.

G. Cer eguin daiteque artaraco Mezaco denboran? E. \*Consideratu Jesu Cristoren Pasione Sainduan, edo bercela empleatu errezuán edo liburu saindua bat leitzen.

G. \*Becatu eguiten du Meza galtzeco peligroan bere borondatez yartzen denac? E. \*Bai, Yauna, naiz enzunic ere.

G. Nor daude obligatuac urtean bein bedare, eta berce erran diren denboretan confesatzera? E. \*Adimentura allegatu diren cristau guciac.

G. \*Eta nor daude obligatuac Bazcotan comecatzera? E. \*Adimentura allegatu diren Cristabac berac: baño noiz asi bear duten comecatzen, uztenda Parroco Yaunaren cuidadora.

G. Gaizqui confesatzen edo comecatzen denac, cumplitzen du Manamendu oquin? E. \*Ez, Yauna: baicic eguiten du becatu gueyago, eta guelditzen da obligatua len baño len ongui cumplitzera.

G. \*Nor obligatzen du barutzeco Manamenduac? E. \*Oguei eta bat urte bete dituzten cristau guciac.

G. \*Cer becatu eguiten du eguiazco motivoric gabe barutzen ezdenac? E. \*Mortala, faltatzen duen gucietan.

G. \*Nola eguin bear dire amarrenac eta primiciac? E. \*Oso eta zucen acostumbrazten den moduan.

G. \*Cer eguiten du amarrena eta primicietan faltatzen duenac? E. \*Ebasten dio Eliza Ama Sainduari, eta obligatua guelditzen da pagatzera.

Obra misericordiazcoac dire amalau: zazpi espiritualac, edo animaren partecoac, eta bete zazpi corporalac, edo gorputzaren partecoac

#### ZAZPI ESPIRITUALAC DIRE OC

*Lenbicoa:* Ez daquienari eracustea.

*Bigarrena:* Bear duenari conseju ona ematea.

*Irugarrena:* Uts eguiten duenari corregitzea.

*Laugarrena:* Injuriac barcatzea.

*Bortzgarrena:* Tristea consolatzea.

*Seigarrena:* Lagun proximoaren faltac eta flaquezac paciencien sufritzea.

*Zazpigarrena:* Illez, eta biciez Yaungoicoari otoiz eguitea.

ZAZPI CORPORALAC DIRE OC

*Lenbicoa:* Eriac visitatzea.

*Bigarrena:* Goseac dagonari yatera ematea.

*Irugarrena:* Egarrac dagonari edatera ematea.

*Laugarrena:* Cautiboac libratzea.

*Bortzgarrena:* Bilusiac bestitzea.

*Seigarrena:* Non bildu ezduenari ostatua ematea.

*Zazpigarrena:* Illac enterratzea.

G. ¿Cergatic deizen dire Obra misericordiazcoac? E. Cergatic ez diren zor justiciaren virtutez.

G. ¿Noiz dire obligationezcoac? E. Guizon juiciosoen ustez necesidade andian direlaric.

**Cristau doctrinaren laugarren partea; cefietan  
esplicatzen dire errecibitu bear diren**

**Sacramentuac**

Icusi dugu cer bearden sifetsi, escatu, eta obratu; icusi dezagun orai cer bear den errecibitu.

G. ¿Erran zazu Eliza Ama Sainduaren Sacramentuac? E. Eliza Ama Sainduaren Sacramentuac dire zazpi: lenbico bortzac

necesidadezcoac, obra edo deseyuz errece-  
bitu bear direnac ceñec gabe ez daiteque  
salbatu uzten badire desprecioz: berce biac  
dire borondatezcoac.

*Lenbicoa:* Batayoa.

*Bigarrena:* Confirmacionea.

*Irugarrena:* Confesionea.

*Laugarrena:* Comunionea.

*Bortzgarrena:* Oliadura.

*Seigarrena:* Ordena.

*Zazpigarrena.* Matrimonioa.

G. Cer dire Sacramentuac? E. Dire se-  
ñale batzuec Jesu Cristo gure Yaunac para-  
tuac, eta guri emateco bere gracia eta bir-  
tuteac.

G. Cer da gracia? E. Da Yaungoicozco  
izate bat, eguiten duena guizona Yaungoi-  
coaren semea, eta Ceruco erederoa.

G. Cer virtute ematen dituzte Sacra-  
mentuac graciarequin batean? E. Principal-  
qui iruteorogalac eta divinoac.

G. Cein dire? E. Fedea, Esperanza eta  
Caridadea.

G. Cer da Fedea? E. Icusi ez duguna  
sifñestea, ceren Yaungoicoac eracutsi duen.

G. Cer da Esperanza? E. Esperantzea  
Ceruco gloria Yaungoicoaren graciaz, gure  
obra onequin batean.

G. Cer da Caridadea? E. Maitatzea Yaungoicoa gauza gucien gañetic, eta gure lagun proximoac gueren buruac bezala, equin izaten galeric ez gurequin izatea nai dugun bezala.

G. Certaco da Batayoco Sacramentua? E. Quentzeco becatu originala, edo berce edocein becatu arquitzen dena batayatzen denaren baitan.

G. Cer da becatu originala? E. Da gucioc decarguna gure lenbico guratso Adan eta Ebaren ganic.

G. \*Batayatu dezaque edoceñec necesidade orduan? E. Bai, Yauna, eta artara dago obligatua.

G. \*Nola batayatuco du? E. Botaco du ura aurraren buru gañera, erraten duelaric denbora berean batayatzeco intencionearequin:—*Nic batayatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Sainduaren izenean. Amen.* Burura ezbadetzaque botaco du ura gorputzeco alduen lecura erratenduelaric denbora berean batayatzeco intencionearequin. *Capaz bazera:—Nic batayatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Sainduaren izenean. Amen.*

G. \*Ez badu buruan batayatu, baicic alduen lecun, ¿berriro equin bear du buruan? E. \*Bai, Yauna, erraten duelaric ura botat-



zean. *Ez bazara batayatu*:—*Nic batayazten zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Sainduaren izenean. Amen.*

G. \*Eta ezin zagutu badu aurraren ichurric baduen, edo bidden, ¿batayatu bear du? E. \*Bai, Yauna, modu berean, erraten duelaric. *Capaz bazera*:—*Nic batayazten zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Sainduaren izenean. Amen.*

G. Certaco da Confirmacioco Sacramentua? E. Da confirmatzeco eta sendotzeco batayoan errecibitu guinuen fedean.

G. Certaco da Confesioneco Sacramentua? E. Batayatz gueroz eguin diren becatuac barcatzeco.

G. Cer becatu dire oriec? E. Mortalac eta benialac.

G. Cer da becatu mortala? E. Da erratea, eguitea, pensatzea edo deseatzea Yaungoicoaren leguaren contra gauza andian.

G. Cergatic deitzen da mortala? E. Cergatic eguiten duenaren anima, iltzen du \*Yaungoicoaren ganaco.\*

G. Cer erran nai duzu orrequin? E. \*Becatu mortalen medioz galtzen duela animac Yaungoicoaren gracia, eta Ceruraco derechoa.

G. Cer parte ditu Confesioneco Sacramentuac quentzeco becatu mortala? E. Iru, Yauna.

G. Cein dire? E. Biotzeco urriquimendua, agozco confesionea eta obrazco satisfaccionea.

G. Becatu mortalean erortzen denac? confesatu bear du bere ala becatua barcatzeco? E. Ongui litzaque, baño ez da obligacioric.

G. Cer eguin bear du bada? E. Bear du izan bere becatuez eguiazgo dolorea, enmendatzeco proposituarequin, eta confesatzeco Eliza Ama Sainduac manatzen duen denboran.

G. Cer da becatu beniala? E. \*Da erratea, eguitea, pensatzea edo deseatzea Yaungoicoaren leguearen contra gauza chiquian, \*eta becatu mortaleraco disposicionea.

G. Cergatic deitzen da beniala? E. Cergatic artan errazqui erortzen da cristaua, eta errazqui barcatzen zayo.

G. Cenbat gauzaz barcatzen zayo? E. Bederatziez, Yauna.

G. Cein dire? E. *Lenbicoa*: Meza entzuteaz. *Bigarrena*: Comecatzeaz. *Irugarrena*: Ni becatoria errateaz. *Laugarrena*: Obispoaren bendicioneaz. *Bortzgarrena*: Ur bedeicatuaz. *Seigarrena*: Ogui bedeicatuaz. *Zazpigarrena*: Aita gurea errateaz. *Zorzigarrena*: Predicua aitzeaz. *Bederatzigarrena*: Pechoac yotzeaz escatzen diolaric Yaungoicoari barcamendua.

G. Certaco da Comunioco Sacramentua?

E. Beardan disposicioarequin errecibitzen dugularic, izan dayen gure animen sustentu espirituala, eta aumenta dezan gracia.

G. Cer errecibitzen duzu Comunioco Sacramentu Sainduan? E. Jesu Cristo gure Yau-na, Yaungoico eta Guizon eguiazcoa, Aldareco Sacramentu Sainduan eguiazqui dagona.

G. Certaco da Oliaduraco Sacramentua?

E. Iru gauzetaco.

G. Cein dire? E. *Lenbicoa*: Becatuaren mancha eta señalear quentzeco. *Bigarrena*: Animari emateco indarra demonioaren tentacioneac garaitzeco. *Irugarrena*: Conbenibada gorputzari osasuna emateco.

G. Certaco da Ordenaco Sacramentua?

E. Ordenatzeco, eta consagratzeco Elizaco ministro dignoac, \*izan daitecen Elizari serbitzeco, eta Sacramentuac emateco.\*

G. Certaco da Matrimonioco Sacramentua? E. Ezcontzeco, eta ezconduer gracia emateco, ceñiquin bici daitecen baquean, eta unionean, eta umeac acidetzaten Ceruraco.

\* **ALDARECO SACRAMENTU GUCIZ SAINDUAREN ESPLICACIONEA**

\*G. Cer dago Ostian? E. Sacerdoteac consagracioco itzac erran baño len, oguia,

Yauna: Sacerdoteac consagracioco itzac erranez, queroz, Jesu Cristoren gorpuz precioso.

G. Badago Ostia consagratuan Jesu Cristoren gorputza bezala odola ere? E. Bai, Yauna: an dago odola, eta anima, bai eta iru Persona divinoac.

G. Cer dago Calizan? E. Sacerdoteac consagracioco itzac erran bafio len, ardo chorta bat ur tanta batequin Sacerdoteac consagracioco itzac erranez queroz, Jesu Cristoren odol precioso.

G. Badago Caliza consagratuan Jesu Cristoren odola bezala gorputza ere? E. Bai, Yauna: an dago gorputza, eta anima, bai eta iru Persona divinoac.

G. Ostia consagratuan ¿guelditzen da oguiric? E. Ez, Yauna.

G. Caliza consagratuan ¿guelditzen da ardoric? E. Ez, Yauna.

G. Cergatic? E. Cergatic oguia eta ardo convertitzen diren Jesu Cristoren gorpuz eta odol preciosoan.

G. Cer guelditzen dire bada? E. Accidenteac, cein baitire oguiaren, eta ardoaren, colorea, usaya eta gustoa.

G. Ostia consagratuaren erdia, edo parte bat errecibitzan duenac, ¿errecibitzen du Jesu Cristo? E. Bai, Yauna, bada Jesucristo

ainberce daga Ostiaren parteric tipianean, nola andianean eta gucian.

G. Eta partitzen duelaric Sacerdoteac Ostia consagratua, ¿partitzen da Jesu Cristoren gorputza? E. Ez, Yauna. \*

\* **Esplicatzen dire confesio onaren condicioneac**

\*G. Ongui confesatzeco cenbat gauza bear dire? E. Borz, Yauna.

G. Cein dire? E. *Lenbicoa*, conciencia esaminatzea; *bigarrena*, dolorea formatzea; *irrugarrena*, enmendatzeco propositu firme bat artzea; *laugarrena*, becatuac confesatzea; *bortzgarrena*, penitencia errebitzean cumplitzeco intencionea izatea.

G. Cer da conciencia esaminatzea? E. Bere becatuez oroitzea.

G. ¿Nondic esaminatzen da conciencia? E. Yaungoicoaren legueco amar Manamentutarit, Eliza Ama Sainduaren borcetaric, eta bacoicharen bere estoduco obligacionetaric.

G. Cer modutan esaminatzen da conciencia? E. Ongui pensatuz cenbat becatu eguin dituen Manamendu bacochean, eta bere obligacionetan, nun eta norequin ibilli den, eta cer ocasionetan aurquitu den.

G. Cein da lecuric oberena conciencia esaminatzeco? E. Lucu erretiratu bat, ceñe-



tan conbeni da escatzea lenic Yaungoicoari bere aguinza.

G. Cenbat denbora bear du conciencia esaminatzeco? E. Ez da denbora señalaturic, baicic bere capacidadearequin, eta denbora confesatu gabe egon denarequin atera beardu contua, eta paratu gauza importantiozco batean paratzen den cuidadoa.

G. Conciencia esaminatzeaz landara, ¿cer eguin beardu? E. Yaungoicoa lagunzarequin formatu eguiazco dolorea.

G. Cer da dolorea? E. Da biotzeco damu, eta urriquimendua Yaungoicoa ofendituaz.

G. Cenbat modutan da? E. Bietan, Yauna

G. Cein dire? E. Contricioa eta Atricioa.

G. Cer da Contricioa? E. Da biotzeco damu, eta urriquimendua Yaungoicoa ofendituaz, ceren den guciz ona, eta maitagarria: propositu firmearequin confesatzeco, eta ez berriz becaturic eguiteco.

G. Cer da Atricioa? E. Da biotzeco damu, eta urriquimendua Yaungoicoa ofendituaz, becatuaren itsustasunagatic edo ceren becatuaren medioz galtzen da cerua, eta merceda infernua: propositu firmearequin confesatzeco, eta ez berriz becaturic eguiteco.

G. Cein da bi doloretan oberana? E. Contricioa, Yauna.

G. Cergatic? E. Cergatic contricioac bere birtutez confesatu baño len barcatzen ditu becatuac, baño atricioac ez confesatu artaraño.

G. Cer da propositua? E. Da artzea determinacione firme bat ez berri beñere becuric eguiteco, eta apartatzeco becatuco ocasea, eta peligro gucietaric.

G. Apartatu nai ez duenac becatuco ocasionetaric? badu propositu firmea? E. \*Ez, Yauna eta unen confesioea ez da eguiazcoa.

G. Cer da becatuac confesatzea? E. Da manifestatzea becatuac Confesoreari concienien dauden bezala; ciertoac cierto bezala: dudazcoac dudazco bezala batere utzi gabe.

G. Cer modutan confesatu bear dire becatuac? E. Claro eta berech, esplicatzen delaric, cenbat becatu eguin dituen Manamendu hacochean, ala pensamentuz, nola edo obraz, eta cer becatuz costumbre, eta ocasionetan aurquitzen den.

G. Cer becatu da obligacionea confesatzeco? E. Mortal guciac, Yauna.

G. Alquez, beldurrez, edo maliciaz uzten duenac becatu mortal bat confesatzeco eguiten du cofesio ona? E. Ez, Yauna; baicic sacrilegiozco becatu mortal bat; eta guelditzen da obligatua confesio ura berritzerra.

G. Eta aztutzen bazayo becatu mortal bat confesatzeco zorrengatic izan daiteque confesio ona? E. Bai, Yauna: ez bada aztutzen esamina faltaz, baño guelditzen da obligatua becatu ura confesatzera.

G. Confesoreac ematen duen penitencia ¿noiz cumplitu bear da? E. Señalatzen badu denbora, denboran artan: señalatzen ez badu, len baño len.

G. Erran diren borz gauza etaric bat faltatzeaz bere culpaz ¿cer confesio eguñen da? E. Confesio gaistoa: eta sacrilegiozco becatua.

G. Cer eguin beardu unelaco becatariac? E. Obligatua guelditzen da berritzera confesio gaisto guciac, eguiten duelaric confesio generala on bat.

G. Eman dezaquegu Yaungoicoari satisfaccionea Confesorearen penitenciaz landara, berce obra onequin? E. Bai, Yauna, graciaco estaduan eguiten ditugun obra on guciac; neque, eta trabajuac ofrecitzen ditugaric gure becatuen satisfaccionean; bai eta ere Indulenciequin.\*

\* CER GAUZA DEN INDULGENCIA

\*G. Cer da Indulgencia? E. Yaungoicoari penitenciarequin eman bear zayon satisfaccionearen barcamendua.

G. Cer satisfaccione zor zayo Yaungoi-coari? E. Becatu benialaz eta becatu mortal barcatuez eman bear zayo satisfaccionea mundu untan penitenciarequin, edo barcelona Purgatorioco penetan.\*

G. Eta zor au barcatzen zayo Indulgencia irabazten duenari? E. Bai Yauna.

G. Nola guertatzen da? E. Aplicatzen zaizco Eliza Ama Sainduaren icenean Jesu Cristoren pasioneco, eta Sainduen mercedimentuac, ceñen medioz barcatzen zayo.

G. Barcatzen zayo zor guzia? E. Indulgencia plenaria, edo osoa osoqui irabaci badu, bai, Yauna.

G. Eta oguei edo berroquei eguneco Indulgenciaz ¿cer barcatzen da? E. Berce ain berce eguneco penitenciac, Elizac len paratzen zituenatan barcatucocena.

G. Cer diligencia eguin bear du Indulgencia irabaztecoz? E. Beretzat irabaztecoz bear du egon graciaco estaduan.

G. Cer gueyago? E. Eguin bear du Indulgencia irabazteco señalaturic dagon obra ona, manantzen den moduan.\*

**\* ESPLICATZEN DIRE COMUNIONE ONAREN  
CONDICIONEAC**

G. Ongui comecatzeco ¿cenbat gauza bear dire? E. Iru, Yauna.

G. Cein dire? E. Bat animaren partecoa, bercea gorputzecoa, eta irugarrena cer errecibitzen den consideratzea.

G. Cein da animaren partecoa? E. Graciano estaduan egotea.

G. Becatu mortalean dagona ¿comeca daiteque? E. Ez, Yauna.

G. Cer eguin beardu bada? Ongui confesatu.

G. Cein da gorputzaren partecoa? E. Gau erditic comeatu artaraño yan eta edan gabe egotea.

G. Comecatzen denac, ¿cer errecibitzen du? E. Jesu Cristo gure Yauna, Yaungoico eta Guizon eguiazcoa, Ceruan eta Aldareco Sacramentuan dagona.

G. Becatu mortalean dagola yaquiñic, comecatzen denac ¿errecibitzen du Jesu Cristo gure Yauna? E. Bai, Yauna, baño eguiten du sacrilegiozco becatu mortala.

G. Nola allegatu bear du cristauac comecatzera? E. Umildade, debocione eta errespetuarequin.\*

**\* ESPLICATZEN DIRE GUIZONAREN AZQUEN FIÑAC, EDO SUERTEAC**

\*G. Cenbat dire guizonaren azquen fiñac, edo suerteac? E. Iau, Yauna.



G. Cein dire? E. Eriotzea, Juicioa, Infernua eta Gloria.

G. Cer da Eriotzea? E. Anima Gorputzetik apartatzea.

G. Cer erran naidu Juicioac? E. Presentatuac izanen garela Yaungoicoaren tribunalean, eta yuzcatuac.

G. Cenbat Juicio izanen dire? E. Bibat ill bezain laster, eta bercea azquen juicioo egunean.

G. Cer da Infernua? E. Da sugarrezco lecu izigarri bat, ceñetan aurquitzen dire tormentu, eta pena genero guciac.

G. Certaco da Infernua? E. Lucifer, berce demoniac, eta becatu mortalean iltzen direnac castigatzeco.

G. Cer da Gloria? E. Da gusto eta contentu genero guciez beteric dagon lecu eder bat.

G. Certaco disponitu zuen gure Yaungoicoac? E. Ainguru Sainduac, eta gracia-co estaduan iltzen direnac bici daitecen arequin batean eternidade gucian.

G. Infernua eta Gloria noizait acabatuco dire? E. Ez, Yauna; baicic iraunen dute eternidade gucian.

G. Eta animac egonen dire Ceruan, eta Infernuan gorputzic gabe? E. Azquen juicioo eguneraño bai Yauna, baño andic aitziañan anima eta gorpuz unituric.

G. Ceruaz eta Infernuaz landara, ¿bada berce lecuric? E. Bai, Yauna, Limbora eta Purgatorioa.

G. Nor goaten dire Limbora? E. Batayo Saindua errecibitu gabe iltzen diren aurren animac.

G. Pasatuco dire noizbait cerura? E. Ez, Yauna; ceren aurquitzen diren becatu originalarequin.

G. Cer de Purgatorioa? E. Da lecu triste bat, ceñetan sufritzen dire tormentu, eta pena andiac.

G. ¿Nor goaten dire Purgatorioa? E. Graciaco estaduan iltzen diren personen animac, baño eman gabe Yaungoicoari satisfaccione osoa becatu benialez, edo becatu mortal barcatuez.

G. Noiz artaraño egonen dire Purgatorioco penetan? E. Yaungoicoaren justiciari satisfaccione osoa eman artaraño.

G. Orduan nora pasatuco dire? E. Ceruco gloriara, Yauna.

G. Lagun detzaquegu guc Purgatorioco animac len baño len libratuoric tormentuetaric pasa daitecen Ceruco gloriara? E. Bai, Yauna, obra onequin, otoitzequin, Meza Saindu eta indulgenciequin.

G. Cer modutan? E. Ofrecitzen ditugularic ayen favoretan.\*

**· BECATU CAPITALAC DIRE ZAZPI**

*Lenbicoa*: Soberbia.

*Bigarrena*: Avaricia.

*Irugarrena*: Luxuria.

*Laugarrena*: Ira.

*Bortzgarrena*: Gula.

*Seigarrena*: Envidia.

*Zazpigarrena*: Naguitasuna edo Pereza.

G. Cergatiz deitz dituzu capitalaz, guenean mortalac deitzen zayenei? E. Deizen dire capitalac, cergatic dire etaric sortzen diren bicioen buruac, iturriac, eta zañac bezala; eta ezda ongui mortalac deitzea, bada anitz aldiz ez dire benialaz baicic.

G. Noiz dire mortalac? E. Direlaric Yaungoicoaren, eta lagun proximoaren caridadearen contra.

G. Noiz dire caridadearen contra? E. Faltatzen delaric equen medioz Yaungoicoaren, edo Eliza Ama Sainduaren Manamenduaren batean gauza andian.

G. Cer da Soberbia? E. Berceac baño gueyago, edo estimatuago izateco deseyu gaisto bat.

G. Cer de avaricia? E. Ondasunen deseyu gaisto bat.

G. Cer da Luxuria? E. Desonestidade-co gusto ciquiñen deseyu gaisto bat.

G. Cerda Ira? E. Benganzaren deseyu gaisto bat.

G. Cer da Gula? E. Yateco eta edateco deseyu gaisto bat.

G. Cer da Enbidia? E. Berceren onaren damutasuna, edo ezin sufritua.

G. Cer da Naguitasuna edo Pereza? E. Obra onac eguiteco animo falta.

**ZAZPI BICIO OQUEN CONTRA BADIRE  
ZAZPI BIRTUTE**

Soberbiaren contra Umildadea.

Abariciaren contra Beraztasuna.

Luxuriaren contra Castidadea.

Iraren contra Paciencia.

Gularen contra Templanza.

Enbidiaren contra Caridadea.

Perezaren contra Diligencia.

**ANIMAREN ETSAYAC, CEÑEN GANIC IGAS  
EGUIN BEAR DUGU, DIRE IRU**

*Lenbicicoa*, Mundua.

*Bigarrena*, Demonioa.

*Iruugarrena*, Araguaia.

G. Nola igas eguiten da Munduaren ganic? E. Despreciatzen direlaric aren anditasun eta banidadeac.

G. Nola igas eguiten da Demoniaren ganic? E. Oracione eta umildadearequin.

G. Nola igas eguiten da Araguiaren ganic? E. Barutuz eta gorputza mortificatuz, au da etsayic andiena, cergatic araguaia ez dezaquegu apartatu gueren ganic, bafio bai Demonioa eta Mundua.

#### BIRTUTE TEOLOGALAC DIRE IRU

Fedea, Esperanza eta Caridadea.

#### BIRTUTE CARDINALAC DIRE LAU

Prudencia, Justicia, Fortaleza eta Templanza.

\*G. Cer da Prudencia? \*E. Da birtute bat, zeñequin portatzen da persona arrazonaren arabera.

\*G. Cer da Justicia? \*E. Da birtute bat, ceñequin bacochari guardatzen zayo bere derechoa gauza gucietan.

\*G. Cer da Fortaleza? \*E. Da birtute bat, zeñequin peleatzen du balorearequin personac salbacioneco etsayen contra, obra onac eguiteco dificultadeac garaituric.



\*G. Cer da Templanza? \*E. Da birtute bat, zeñequin artzen du personac negurria ala gorputzeco sustentuan, nola gañeraco gustoetan.

#### **GORPUTZAREN SENTIDOAC DIRE BORTZ**

*Lenbicicoa*, begüez icustea.

*Bigarrena*, belarriez aditzea.

*Irugarrena*, agos gustatzea.

*Laugarrena*, sudurrez usmatzea.

*Bortzgarrena*, escuoz uquitzea.

G. Certaco eman dazquigu Yaungoicoac sentidoac, eta gorputzeco gañeraco parteac? E. Guçiequin cerbitu dezagun gauza guçietan.

#### **ANIMAREN POTENCIAC DIRE IRU**

Memoria, Entendimentua eta Borondatea.

C. Certaco eman zigun Yaungoicoa Memoria? E. Artaz eta aren faboreaz oroitzeco.

G. Certaco Entendimentua? E. Bera zagutzeco, eta artan pensatzeco.

G. Certaco Borondatea? E. Maita dezagun gauza guçien gañetic, ceren den guçiz ona eta lagun proximoac aren gatic.

#### **ESPIRITU SAINDUAREN DOAYAC DIRE ZAZPI**

*Lenbicicoa*, Yaquinduriaco doaya.

- Bigarrena*, Entendimentuco doaya.  
*Irugarrena*, Consejuro doaya.  
*Laugarrena*, Ciencia edo yaquiteco doaya.  
*Bortzgarrena*, Fortalezaco doaya.  
*Seigarrena*, Piedadeco doaya.  
*Zazpigarrena*, Yaungoicoaren beldurta-  
suneco doaya.

**ESPIRITU SAINDIAREN FRUITUAC DIRE  
AMABI**

- Lenbicicoa*, Caridadea.  
*Bigarrena*, Baquea.  
*Irugarrena*, Biotzeco anditasuna.  
*Laugarrena*, Proximoarenganaco beren-  
tasuna.  
*Bortzgarrena*, Fedea.  
*Seigarrena*, Continencia.  
*Zazpigarrena*, Gozo espirituala.  
*Zorcigarrena*, Paciencia.  
*Bederatzigarrena*, Ontasuna.  
*Amargarrena*, Biotzeco mansotasuna.  
*Amecagarrena*, Modestia.  
*Amabigarrena*, Castidadea.

**BIENABENTURANZAC EDO ZORIONAC  
DIRE ZORCI**

Zori-onecoac biotzez pobre direnac, cerga-  
tic equena da Ceruco erreinua.

Zori-onecoac biotz manso dunac, cergatic izanen dire lurraren yabeac.

Zori onecoac nigar eguiten dutenac, cergatic izanen dire consolatuac.

Zori-onecoac justiciaren edo gauza Sainduen gosea, eta egarria dutenac, cergatic equen deseyuac izanen dire gucziz beteac.

Zori-onecoac misericordiosoac, cergatic erditsico dute misericordia.

Zori-onecoac biotz garbi dutenac, cergatic icusico dute Yaungoicoa.

Zori-onecoac baquezcoac, cergatic izanen dire deituac Yaungoicoaren umeac.

Zori-onecoac justicia, edo gauza onagatic perseguituac direnac, cergatic equena da Ceruco erreinua.

G. Cer erran dituzu orai? E. Zorci bienabenturanzac.

G. Cer gauza dire bienabenturanzac? E. Espiritu Sainduaren birtute, eta duayen, obraric oberenac.

G. Nor dire biotzez pobreac? E. Nai ez dutenac onrraric, ez eta ondasunic, andiac ez izanic ere.

G. Nor dire biotz manso dunac? E. Irraric ez dutenac, ez eta casic aren mobimenturic ere.

G. Nola dire lurraren yabeac? E. Beren buruaren Yaunac bezala.

G. Nor dire nigar eguiten dutenac? E. Gustoac uzten dituztenac gaistoac ez izanic ere.

G. Nor dire justiciaren, edo gauza Sainduen gosea, eta egarria dutenac? E. Obligazioz duten gucia cuidadorequin eguiten dutenac.

G. Nor dire misericordiosoac? E. Guciz piadosoac orañic arrotzequin, eta berenac ez direnequin ere.

G. Nor dire biotz garbi dunac? E. Beren pasionetan gucin mortificatzen direnac.

G. Nor dire baquezcoac? E. Beren eta berceren artean baquea paratzen dutenac.

G. Nor dice justicia, edo gauza onagatic padecitzen dunac? E. Gauza onetan firme daudenac, perseguituac izanic ere.

G. Cergatic deitzen dire bienabenturanza, edo zori onac? E. Cergatic ontan dago guri ongui izatea mundu untan, eta bercean dichosoac izateco esperanza.

M. Yaungoicoac bere gloriara ereman gaizala gucioc. Amen.

Gloria Aitari, gloria Semeari, gloria Spiritu Sainduari. Orai eta beti denbora gucien denboretan. Amen.

## ACTA FEDECOAC, ESPERANZA ETA CARIDADECOAC

### FEDECO ACTOA

Nic siñesten dut firmequi Trintateco misterio Sainduan; Aita dela Yaungoicoa; Semea dela Yaungoicoa; Espiritu Saindua dela Yaungoicoa; eta iru Persona distintoac izanagatic ez dela eguiazco Yaungoico bat baicic. Siñesten dut Trintateco bigarren Persona eguin dela Guizon María Santisimaren entrañetan, sortu dela, sufritu zuela eriotze, eta pasione dolorosa, biztu dela irugarren egunean, igan dela Cernetara, eta andic etorrico dela azquen juicioco egunean ille eta bicien yuzgatzerá, onei ematera gloria eta gastoei betico pena. Siñesten dut Jesu Cristo gure Yauna dagola Aldareco Sacramentu Sainduan aii eguiazqui nola Ceruan. Siñesten dut Eliza Ama Sainduac siñesten duen, eta eracusten duen gucia, eta nai dut bici eta ill Fede Sainduan untan.

### ESPERANZACO ACTOA

Nic esperatzen dut, nere Yauna, eta Yaungoicoa, zure misericordia, eta ontasunean, Jesu Cristo nere Redentorearen merecimentuen gatic, zure laguntza-requin, eguiten ditudan obra oneguin batean logratuco dudala Ceruco gloria Saindua.

### CARIDADECO ACTOA

Nic maitatzen zaitut, Yaungoico amorosoa, biotz osoarequin gauza guciac baño gueyago, ceren zaren guciz ona: eta zure amorioagatic maitatzen ditut lagun proximo guciac nere burua bezala; eta ceren zaren guciz maifagarria damu dut biotzetico zu ofendituz. Nai dut bici zure cerbitzu Sainduan eriotzerañicoan. Amen.



MARIA SANTISSIMAREN LETANIA

Kyrie eleyson.  
Christe eleyson.  
Kyrie eleyson.  
Christe audi nos.  
Christe exaudi nos.  
Pater de cœlis Deus.  
Miserere nobis.  
Fili Redemptor mundi Deus.  
Miserere nobis.  
Spiritus Sancte Deus.  
Miserere nobis.  
Sancta Trinitas unus Deus.  
Miserere nobis.  
Sancta Maria.  
Sancta Dei Genitrix.  
Sancta Virgo Virginum.  
Mater Christi.  
Mater divinæ graciæ.  
Mater purissima.  
Mater castissima.  
Mater inviolata.  
Mater intemerata.  
Mater immaculata.  
Mater amabilis.  
Mater admirabilis.  
Mater boni consilii.  
Mater Creatoris.  
Mater Salvatoris.  
Virgo prudentissima.  
Virgo veneranda.  
Virgo prædicanda.  
Virgo potens.  
Virgo clemens.  
Virgo fidelis.

ORA PRO NOBIS

- Speculum justitiæ.  
Sedes sapientiæ.  
Causa nostræ lætitiæ.  
Vas spirituale.  
Vas honorabile.  
Vas insigne devotionis.  
Rosa mistica.  
Turris davidica.  
Turris eburnea.  
Domus aurea.  
Fœderis arca.  
Janus cœli.  
Stella matutina.  
Salus informorum.  
Refugium peccatorum.  
Consolatrix afflictorum.  
Auxilium christianorum.  
Regina angelorum.  
Regina patriarcharum.  
Regina prophetarum.  
Regina apostolorum.  
Regina martyrum.  
Regina confessorum.  
Regina virginum.  
Regina sanctorum omnium.  
Regina sine labe originali concepta.  
Regina sacratissimi Rosarii.  
Regina pacis.
- v. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.  
R. Parce nobis, Domine.  
v. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.  
R. Exaudi nos, Domine.  
v. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.  
R. Miserere nobis.  
v. Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix.  
R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

## OREMUS

Gratiam tuam, quæsumus, Domine, mentibus nostris infunde, ut qui angelo nuntiante Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per passionem ejus, et crucem, ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eumden Christum Dominum nostrum. R. Amen.

Yaungoico Saindua, Yaungoico fuertea, Yaungoico inmortala. Gaitz guciatatic libra gaitiatzu Yauna.

## ALDARECO SACRAMENTU

GUCIZ SAINDUAREN ONRAN ETA ALABANZAN

*Sacris solemnis cantatzen den tonuan*

1 ¡O nere animal  
Jesus laudazazu,  
Aren amoriora  
Publicatu zazu:  
Aldare Sainduan  
Considerazazu  
Gu gatic Sacramentuan.

2 ¡Oh amorioa  
Negurric ez duenal  
O misterioa  
Arritzen duenal  
Ostia batean,  
Yaungoico bat dena.  
Guizonaren amorioz.

3 Oguia dirudi  
Beguz beiraturic,  
Fedea erratendu  
Ez dela oguiric.

- Baicic dela Jesus  
 Yanari eguific  
 Animaren sustentuco.
- 4 Ainguiruac Berac  
 Daude arrituric  
 Icustean Jesus  
 Sacramentaturic  
 Cristaba allegatzen  
 Yauna conbidaturic  
 Aren errecibitzera.
- 5 Guizona ill ezdayen  
 Gurutzean iltzenda  
 Bici dayen beti  
 Emen guelditzen da  
 Cerua utzi gabe  
 Ostian yartzen da  
 Gucia da gure gatic.
- 6 Iturri Saindura  
 Egarric dagona  
 Dago conbidatzen  
 Gure Jesus ona:  
 Emen nai du unitu  
 Berequif Guizona  
 Amorioaren indarrez.
- 7 Andiac, tipiac,  
 Guciac deituac  
 Dire aldarera  
 Eta conbidatuac;  
 Zori onecoac  
 Ongui garbituac  
 Maiz allegatzen direnac.
- 8 Emen cargatuac  
 Cargatic libratzen,
- Eta affligituac  
 Dire consolatzen:  
 Deseyu Sainduz,  
 Bai ere betetzen  
 Allegatzen den anima.
- 9 Munduco gustoac  
 Emen galtzen dire  
 Ceruco esperanzac  
 Emen bizten dire  
 Sacramentu untan  
 Bai sentitzen dire  
 Eguiazco consueloac.
- 10 Becatuan daudenac  
 Ez dire deituac  
 Anima manchatuac  
 Dire apartatuac.  
 Yanari Saindura  
 Dande conbidatuac  
 Bacarri cristauyustuac.
- 11 Ongui garbituric  
 Allegatzen dena  
 Yaunaren graciaz  
 Betetzenda dena;  
 Au da Ceruraco  
 Bideic zuzenena  
 Jesusequin unitzea.
- 12 Bedeicatuac Jesus  
 Beti izan dayela  
 Aren amorioa  
 Publica dayela,  
 Gure animetan  
 Beti bici dayela  
 B eraren graciaz. Amen

MEZA LAGUNTZECO MODUA

ŷ. In nómine Patris ✠ et Filii et Spíritus Sancti. Amen. Introibo ad altáre Dei.

Ŕ. Ad Deum qui lætíficat juventútem meam.

ŷ. Júdica me Deus, et discérne causam meam de gente non sancta: ab hómine iniquo et dolóso erue me.

Ŕ. Quia tu es, Deus, fortitúdo mea: quare me repulísti? et quare tristis incédo, dum affligit me inimícus?

ŷ. Emitte lúcem tuam; et veritátem tuam ipsa me deduxérunt, et adduxérunt in montem sanctum tuum, et in tabernácula tua.

Ŕ. Et introibo ad altáre Dei; ad Deum qui lætíficat juventútem meam.

ŷ. Confitébor tibi incithara, Deus, Deus meus; quare tristis es ánima mea? et quare contúrbas me

Ŕ. Spera in Deo, quóniam adhuc confitébor illi: salutáre vultus mei, et Deus meus.

ŷ. Gloria Patri, et Filio, et Spíritui Sancto.

Ŕ. Sicut erat in principio, et nunc, et semper, et in saécula sæculórum. Amen.

ŷ. Introibo ad altáre Dei.

Ŕ. Ad Deum qui lætíficat juventútem meam.



ŷ. Adjutórium nostrum in nómine Dómine.

Ŕ. Qui fécit coélum et terram.

ŷ. Confiteor Deo omnipotenti, etc., et vos, fratres, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

Ŕ. Misereátur tui omnipotens Deus, et dimíssis peccátiis tuis, perdúcat te ad vitam ætérnam.

ŷ. Amen.

Ŕ. Confíteor Deo omnipoténti, beatæ Mariæ sémper Vírgini, beato Michaéli Archángelo, beato Joanni Baptistæ, Sanctis Apóstolis Petro et Paulo, ómnibus sanctis, et tibi Pater, quia peccávi nimis cogitatióne, verbo et ópere, mea culpa, mea culpa, mea máxima culpa, ideo precor beatam Mariam sémper Vírginem, beatum Michaélem Archángelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos Apóstolos Petrum et Páulum, omnes sanctos, et te Páter, oráre pro me ad Dóminum Deum nostrum.

ŷ. Misereátur vestri omnipotens Deus, et dimíssis peccátiis vestris, perdúcat vos ad vitam ætérnam.

Ŕ. Amen.

ŷ. Indulgéntiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens et miséricors Dóminus.

Ŕ. Amen.

Ÿ. Deus tu conversus vivificábis nos.  
R̄. Et plebs tua lætábitur in te.  
Ÿ. Ostende nobis, Dómine, misericor-  
diam tuam.

R̄. Et salutare tuum da nobis.

Ÿ. Dómine exáudi oratióem meam.

R̄. Et clamor meus ad te veniat.

Ÿ. Dóminus vobiscum.

R̄. Et cum spírítu tuo.

Ÿ. Kyrie, eléison.

R̄. Kyrie, eléison.

Ÿ. Kyrie, eléison.

R̄. Christe, eléison.

Ÿ. Christe, eléison.

R̄. Christe, eléison.

Ÿ. Kyrie, eléison.

R̄. Kyrie, eléison.

Ÿ. Kyrie, eléison.

Ÿ. Dóminus vobiscum.

R̄. Et cum spírítu tuo.

Ÿ. Per ómnia saécula sæculorum.

R̄. Amen.

*Epistola acabatzendelaríc erraten da.*

R̄. Deo gratias.

Ÿ. Dóminus vobiscum.

R̄. Et cum spírítu tuo.

Ÿ. *Sequentia Sancti Evángelii secún-  
dum... (vel inítium)...*

R̄. Glória tibi, Dómine.

*Epistola acabatzen delaric erraten da.*

R. Laus tibi, Christi.

V. Dóminus vobiscum.

R. Et cum spíritu tuo.

V. Orate, frates, etc.

R. Suscípíat, Dóminus sacrificium de  
mánibus tuis ad láuden et gloriam nóminis  
sui, ad utilitátem quoque nostram totiusque  
Eclesiæ suæ sanctæ.

V. Per ómnia saécula sæculórum.

R. Amen.

V. Dóminus vobiscum.

R. Et cum spíritu tuo.

V. Sursum corda.

R. Habemus ad Dóminum.

V. Gratias agamus Dómino Deo nostro.

R. Dignum et jústum est.

V. Per ómnia saécula sæculórum.

R. Amen.

V. Et ne nos inducas in tentatiónem.

R. Sed libera nos a malo.

V. Per ómnia saécula sæculórum.

R. Amen.

V. Pax † Dómini sit † semper vobis †

cum.

R. Et cum spíritu tuo.

V. Dóminus vobiscum.

R. Et cum spíritu tuo.

Ÿ. Dóminus vobiscum.

Ŕ. Et cum spiritu tuo.

Ÿ. Ite, missa est.

Ŕ. Deo gratias.

Ÿ. Pater et Filius et Spiritus Sanctus.

Ŕ. Amen.

Ÿ. Dóminus vobiscum.

Ŕ. Et cum spírítu tuo.

Ÿ. Inítium sancti Evangélli secundum  
Joannem.

Ŕ. Glória tibi, Dómine.

*Epistola acabatzendelaric erraten da.*

R. Deo gratias.







IMPRESA Y LIBRERIA  
DE  
GERARDO QUINTANA  
ELIZONDO  
(NAVARRA)



Impresiones de toda clase de cartas, facturas, memorandums, sobres, recordatorios, de defunción, de primera misa, de comunión, etc.

Papelería corriente y de fantasía, Devocionarios surtidos, Diccionarios, Libros de escuela de primera enseñanza, contabilidad y de bolsillo, Rosarios surtidos para bodas y regalos, estampas corrientes y de fotografías finas, medallas de aluminio y plata, cruces de distintas clases y tamaños, tintas de todos los colores, lápices en colores surtidos de tinta, plumas estilográficas, escribanías y todo lo concerniente al ramo de objetos de escritorio.

18